

Kultura

‘Heroiak’, gerrako beteranoen bizipenak kontatzen dituen antzezlanak taularatuko dute Berrizko kultur etxean > 12



Istripuak saihesteko radarrak eskatu dituzte, Berrizen eta Mallabian

Berriztik Trabakuara bidean, BI-633 errepidean gertatzen diren istripuak saihestu guran, Berrizko eta Mallabiko Udalek indarrak batu dituzte. Radarrak eta oinezkoentzako pasabideak eskatuko dizkiote Bizkaiko Foru Aldundiari > 2



Lehior Elorriaga

‘Gorka etxera’ plataformak “esku artean dugun arazo larriaz” ohartarazi gura du

Larriki gaixo dauden 11 presoen zerrendan dago Gorka Fraile durangarra. Mingainean minbizia sendatzeko ebakuntza egin zioten ekainean. Espetxeak “sendatzeko beharrezko baldintzak” ematen ez dizkiola-eta, preso durangarra “etxeratzea” helburu duen plataforma sortzeko lanean hasi ziren Fraileren lagun batzuk. Aurkeztu berri dute plataforma herrian. > 10

“Azken urteotan bizi izan dudana prozesu zail hori dago disko berri honetan islatuta” > 11

Sorkun Rubio | Abeslaria



A. Urreta
podólogo

Ainara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,
10, behea - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 214/06

katerin ardoak
inaki uribe

saltsan

Eguneako menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Durango > 4

Tabirako biribilgune berria trafikora zabaldu dute asteon

Durangaldea > 6

1.000 etxe gehiago batu dira organikoa birziklatzeko planera

Atxondo > 9

Apatako espazio publikoa zelan antolatu, herritarren esku

Iurreta > 6

Emakumeen kontrako bi eraso sexista salatu dituzte, asteon

Herririk herri

Mallabiko eta Berrizko Udalek BI-633 errepidean radarrak jartzea eskatuko diote aldundiari

Ereñatik Trabakuara bidean ibilgailuen abiadura murrizteko neurriak elkarregaz eskatuko dizkiote foru arduradunei



bidea izan daiteke. San Juanetik Trabakuara joateko hiru errail zeharkatzea oso arriskutsua da. Autobusa hartzeko ere bidea gurutzatu beharra dugu”.

Animalien bidea

Mallabian, animalien pasabide naturala moztzen du BI-633 errepideak. Horrela, azkonarrek, orkatzek eta beste hainbat animaliak bidea zeharkatzen dute errepidearen beste aldean dagoen errekarara joateko. “Oizen behera bajatzen dira, eta errepidera irteten dira. Arazo horri irtenbideren bat eman behar diogu”, azaldu du Mallabiko alkateak.

Azken boladan egon diren istripuen zergatia jendearen abiadurari leporatzen dio Pedro Antxia kamioilari mallabiarra. Goizaldean bereziki, jendea presaren presaz ibiltzen da Trabakua mendateko errepidetik, eta gidari askorentzat oso arriskutsua da bertatik ibiltzea. Hori ekiditeko, abiadura motelduko luketen radarrak jartzearen aldekoa da: “Jendea azkar

ERREPORTAJEA J.G./P.B.

BI-633 errepidean gertatutako auto istripu larriek Berrizko eta Mallabiko udaletan kezka handia eragin dute. Ereñatik (Berriz) hasi eta Trabakuaraino (Mallabia) hainbat istripu larri gertatu dira 10 kilometroko tarte honetan. 2015ean 29 urteko gazte durangarra hil zen *plantxak* izenez ezagutzen den igoeran istripua izanda. 2016a beste gertaera tamalgarri batekin hasi da. Aitor Bugallo txirrindulari ohiak errepide horretan galdu zuen bizia, urtarrelean, lanera zihoala. Zorigaitzoko estatistika honen hurrengo istripua joan zen asteburuan bertan gertatu zen. Bi ibilgailuk istripua izan zuten Mallabian, Trabakuako gainean, eta zauritueta bat helikopteroan eraman behar izan zuten ospitalera.

BI-633 errepidean, Berrizko zatian bakarrik, 2015ean 5 istripu izan ziren (hildako bat).

60
istripu gertatu ziren 2015ean
Berriz eta Ondarroa artean,
BI-633 errepidean

2014an, oster, 12. Errepide horretan, Berriz eta Ondarroa artean, estatistikak ondorengoak dira: 2015ean 60 istripu gertatu ziren, eta 2014an 85.

Indarrak batuz

Istripuak saihestu eta bidearen segurtasuna hobetu guran, Orlan Isoird Berrizko alkateak eta Igor Agirre Mallabiko alkateak eskaera zehatzak bideratu gura dituzte Bizkaiko Foru Aldundira. Indarrak uztartuz, abiadura murrizteko radarrak ezartzea eskatu gura diote aldundiari. Horrez gainera, Ertzaintzak abiadura kontrol gehiago egitea

eskatzen dute. Orlan Isoird Berrizko alkateak azaldu duenez, BI-633 errepidearen inguruan aurreko legeintzaldian ere hainbat eskaera helarazi zituzten Bizkaiko Foru Aldundira. Lariz inguruko sarbidea hobetu, eta norabidea aldatzeko obra egin zuen aldundiak. Horrez gainera, oinezkoentzako pasabideak eskatu zituen Besoitan, Andikonako buelta egiten duten oinezkoek hiru errail gurutzatzen dituztelako. Ereñan ere beste pasabide bat eraikitzea eskatu dute. Ingurumenaren aldetik, “onena” lurrazpikoak egitea izango litzatekeela dio Isoirdek.

Pasabide gehiago

Mallabiko Udalak eta Debege-sak batzarra egin dute aldundiko ordezkariekin, Trabakuan oinezkoentzako pasabidea eskatzeko. Jon Larrea Herri Lane-tako zuzendariagaz bildu dira pasabidea eskatzeko. Agirrek

aurreratu duenez, Carlos Totorika Ermuako alkateak ere ekimenagaz bat egin du.

Urteak dira Trabakuako eta inguruko auzoetako bizilagunek ere lurrazpiko pasabidearen eraikuntza eskatzen dutela. Aldarrikapen horri bultzada eman guran, sinadura biltzea egin zuten, baina aldundiak ez zuten ontzat eman. “Arazoetatik bidegurutzeara baino ez zuten konpondu, animalien eta pertsonen pasabidea egin gabe baitago”, dio Valentin Mugarza pasabidea eraikitzea eskatzen duen plataformako kideak. 2010ean pasabidearen eraikuntza aldarrikatzeko martxa antolatu zuten. Bestalde, ibilgailuen abiadura murrizteko radarrak jartzea begi onez ikusten dute auzunean: “Jendea motelago joateko irten



“Oinezkoentzat pasabidea eskatu diogu aldundiari”

IGOR AGIRRE

ibiltzen da errepidea bustita egon arren, eta horrez gain, egin behar ez dituzten aurreratzeak egiten dira”. Errepidea hobetu daitekeela dio Antxiak. Dena dela, errepidea hobetzeak “abiadura gustuko duten gidariak” ekarriko litzukeela gaineratu du kamioilariak.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko otsailaren 12a
14. urtea - 620. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña eta
Paul Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Herritarren iritzia lagunduta osatu dute bigarren berdintasun plana

ZORNOTZA J.Derteano

Datozen lau urteei begira, udalak osatu duen II. Berdintasun Plana aurkeztu dute. Azken udalbatzarrek aho batez onartu zuen. Plana osatu aurretik, herritarren artean gaur egungo egoeraren eta hobetu beharreko alorren gaineko diagnostiko parte-hartzailea egin dute, 312 inkestaren bidez: "Oso erantzun ona izan du prozesuak", nabarmendu du Begoña Nazabal Gizarte Ekintza alorreko arduradunak.

Herritarren ekarpenak baliagarriak izan zaizkie hobetu beharreko atalak ikusteko. Esaterako, udalak erantzukidetasunaren esparruan sakontzeko eskaerak jaso dira. Antolatzen dituzten ekintzak herritarrei jakinarazteko bideak zabaltzeko beharra ere ikusi dute; hedabide sozialen bidez, esaterako. Horrez gainera, koordinazio-egiturak sendotzeko bidean, aurten, Udaleko Berdintasun Kontseilua herritar denei irekitzeko asmoa dute, eta ez elkarteei bakarrik.

Burduntziko bildots txapelketagaz amaituko dituzte San Blas jaiak

Idi probetan emakumeei ez kobratzeko ekimenak eztabaida piztu du

ABADIÑO A.U./J.G.

Ohiturari eutsiz, San Blas jaietako bigarren astebururako, XXVIII. Burduntziko bildots txapelketa antolatuko dute Abadiñon. Tartean, txakoli erakusketa ere prestatuko dute. Ondoren, 14:00etan, bildots bazkarian bilduko dira probalekuan. Ekitaldi honekin 2016ko San Blas jaietako egitarauari amaiera emango diote.

Erlete garaile

Astlehenean idi proben azken jardunaldia jokatu zuten. Erlete izan da, aurten, Abadiñoko idi probetako San Blas Saria eskuratu duena. Horrela, 1.750 euro, garaikurra, txapela eta manta eraman ditu etxera. Iñaki Lopategi izan da 1.450 euroko bigarren saria eskuratu duena. Hirugarren, Oliden sailkatu da, 1.200 euroko sariagaz.

Emakumeak doan

Aurten, ika-mika sortu da, idi proben lehen egunean probalekuko leihatilan, ordaintzeko lekuan, kartel bat jarri zutelako, emakumeentzat sarrera doakoa zela esanez. Abadiñoko alkate Jose Luis Navarrok azaldu du ekimena ez dela udalarena izan, eta jakin zuten unean kendu zutela kartela. Emakumeentzat sarrera doan jartzea idi proben

antolaketan dabilen pertsona baten ideia izan zela azaldu du Navarrok: "Familia bati gastu hori guztia ez eragitea nahi zuen, baina ez du zentzurik, aita-semeak joanez gero, biek ordaindu beharko lukete; ez dauka zentzurik". Udal arduradunek kartelaren berri izan zutenean, orduantxe kendu zutela azaldu du alkateak.

Sare sozialetan ika-mika sortu duen gaia izan da hau. Abadiñoko EH Bilduk, esaterako, gogor kritikatu zuen kartela: "Egiten den genero bereizketak honek emakumea bigarren mailan uzten du, hauek sarrera ordaintzeko autosufizienteak izango ez balira bezala."



Astlehenean, idi proben azken jardunaldian probalekuan ateratako argazkia.



Probalekuko leihatilan jarri zuten kartela.

Aurkitu zure diamanteak Durangaldean.

15 urte baino gehiago, Durangalde erdi-erdian, geure bezeroei hurrengo zerbitzuak eskaintzen daramagu:

- Ibilgailu berriak eta bigarren eskukoak
- Mekanika eta karrozerian autoetarako osoko tailer-zerbitzua



AGUINAGA TALDEA

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es
www.aguinaga.es

info@mitsubishibizkaia.com
www.mitsubishibizkaia.com

Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3
48340 ZORNOTZA
Tel.: 94 630 17 47

Tabirako biribilgune berria zabalik dago trafikorako

Duela ia urtebete hasi ziren saihebidetan segurtasuna hobetzeko obrak

DURANGO Markel Onaindia Urtetan zehar hainbat istripuren sorburu izan da BI-623 errepideko saihebidetako. Azken hamarkadak kontuan hartuta, ehun istripu inguru jazo dira, hiru lagun hil eta hainbat zaurituta. Ondorioz, udala eta aldundia kezkatuta zeuden. Tabirako biribilgunearen sarrera izan da gunerik arriskutsuenetakoa; Izurtzarako noranzkoan, biribilgunera sartzeko eta handik irteteko ezkerretarantza manobra egin behar zen, eta autoen abiadurak mugimendu arriskutsu bihurtzen zituen. Duela

ia urtebete hasi ziren obrak, eta asteon trafikorako zabalik egon da biribilgune berria. Obra osoa hile honetan amaituko dute.

San Rokera bitartean, errepide erdian erdibitzaile bat ipini dute, autoen aurreratzeak saihesteko

Obragaz, biribilgunea errepidera aterako dute. Horrela, errepidean doazenak biribilgunean sartu behar dira derrigorrean,

eta abiadura nabarmen murrizten da. Gainera, handik San Rokera bitartean, errepide erdian erdibitzaile bat ipini dute, autoen aurreratzeak saihesteko. Bestalde, hemendik aurrera, Alde Zaharrerantz joateko Gasteiz Bidea erabili gura dutenek, Ibaizabal ikastola aurreko biribilgunean buelta hartu beharko dute. PSE-EEk aldaketa hori kritikatu zuen iaz.

Proiektuak bi milioi euroko aurrekontua eduki du. Denbora honetan zehar, sarritan aldatu dituzte Durangoko sarrerak eta irteerak.



Biribilgune berria erabilgarri dago jada BI-623 errepidean, Tabiran.

Denboraren Bankua martxan, Sorginola gaztetxeko eskutik

Salerosketatik aparte, pertsonen beharrei erantzuteko modu bat gura dute

DURANGO M.O.

Ainhua Olasok, Lara Arestik eta Iratxe Delgadok proiektu alternatibo bat dute esku artean: Denboraren Bankua. Sorginola gaztetxeko kideak dira hirurak, eta nesken partaidetza handia berezitasun duen gazteen elkar-gune horretan loratu zen ideia. Merkatuaren eta salerosketaren eredutik aparte, pertsonen beharrezari erantzuteko beste modu bat topatu gura dute banku berezi horregaz.

Denboraren Bankua herritar guztiei zabaldi nahi diete, eta, datorren eguaztenean, hilak 17, lehenengo asanblada egingo dute. 18:00etan hasiko da, Sorginolan, Tabiran. Proiektuan parte hartzen dutenek, euren denbora zertarako eskaintzen duten esango dute, eta, aldi berean, beste batzuen zerbitzua jaso ahaliko dute. Ez da bi lagun arteko truke zuzena izango,

taldekoa baizik. Euren arteko hartuemana Interneteko atari baten bidez egingo dute.

Paseoak, klaseak...

Olasok hainbat gauza eskainiko

ditu: “Txakurra paseatu, goizetan umea eskolara eraman, ilea moztu... ideia asko etorri zaizkit burura”. Arestik, oster, klase partikularrak eskainiko ditu, jarraikortasunik gabeak.



Ezkeretik hasita, Olaso, Aresti eta Delgado, Denboraren Bankuaren sortzaileak.

Filmak emango dituzte Berdeago Azokan

Plateruena, Film Berdea gunea bihurtuko da



Hazten dabilen azoka da Berdeago, eta aurtien ere jende gehiago espero dute.

DURANGO M.O.

Datorren asteburuan, hilaren 19tik 21era bitartean, Berdeago Azokaren aurtengo edizioa burutuko da Landako Gunean, ingurugiroaren iraunkortasuna ardatz hartzen duen azoka, hain zuzen. Laugarren aldia izango da, eta, oraingoan ere, egitasmoaren hazkundera igarriko da. Izan ere, inoiz baino erakusle gehiago egongo dira –iaz baino hamabost gehiago–, eta gune berri bat ere edukiko du: Plateruena kulturagunea Film Berdea gunea bihurtuko da egun horietan. Horri esker, gaiagaz lotutako film edo pelikulak eskainiko dituzte egitarau zabalean.

Barikuan pelikula bi eskainiko dituzte, eta domekan beste

hiru. Ander Iturriagagoitia antolatzaileak azaldu duenez, *Bikes vs Cars* pelikula da esanguratsuenetakoa. Gaiaren inguruan eztabaida sortzen dabilela dio, eta nazioartean hainbat sari eskuratu dituela ere bai. Barikuan, 22:00etan izango da proiektzioa.

Alternatibak erakusten

Aitziber Irigoras alkateak azaldu du helburu nagusi bi dituela Berdeago Azokak, herritarrengan kontzientzia sortzea, eta merkatuko alternatibak erakustea. Faktura ulertzeko tailerra, eta toxikorik bako etxeen zein lastoz eginiko eraikuntzen inguruko berbaldiak daude auzokan, besteak beste.

Bilbon eta Donostian badaude antzerako bankuak, eta handik informatu dira. “Ideia tertulia feminista batean entzun genuen, eta oso interesgarria iruditu zitzaigun”, azaldu du Arestik. Olasoren arabera, “sozioekonomia arloan alternatiba bat sortzea beharrezko” ikusten zuten gaztetxetik.

Denboraren Bankuaz gainera, musikariaren sarea, ateneo kulturala eta artisten taldea martxan dituzte Sorginolan.

Durangaldeko Gure Esku Dagok ekitaldia egingo du, Plateruenean

DURANGO M.O.

Gure Esku Dago mugimenduen eskualdeko ekitaldia iragarri du datorren eguenerako, hilaren 18rako. Plateruena kulturagunean, 19:00etatik aurrera, *Eskura* izeneko hausnarketa prozesuaren emaitzak azalduko dituzte, eta, gainera, etorkizuneko erronken berri ere emango dute. Zelai Nikolas bozeramaileak parte hartuko du.

Dima eta Goierri

Bestalde, hainbat herritan herri-galdeketa antolatzen hasi dira, Euskal Herriko izaera politikoaren inguruan erabakitze eskubidea praktikara eramateko asmoagaz. Dima (Bizkaia) eta Goierriko 22 herriak (Gipuzkoa) dira horren adibide, eta esperientzia horiek bertatik bertara ezagutzeko aukera egongo da Platerueneko ekitaldian.

Euskal Ingurugiro Iraunkortasun Azoka



berdeago

Durango, Landako Gunea
Otsailak 19, 20, 21**Otsailak 19, ostirala**

Ordutegia: 11:00-14:30 / 16:00-20:30

ZIRKULO BERDEA

09:00 / 13:00 Passivhaus formakuntza (izen ematea eta informazio gehiago: info@onhaus.es)
Passivhausaren 5 printzipioak (Pedro Mariñelarena, arkitektoa)
Blower door-a eta termografia (Eneko Iraizoz, ingeniari termikoa eraikuntzan)
Eraikinerako-siga hermetikotasunaren inguruko tailer praktikoa (Koldo Monreal, Zuzendaria onhaus-en)

17:00 / 20:00 Ludoteka**HITZ BERDEA**

17:00 / 17:30 Bizkaiko Iraunkortasunera hezkuntzako ekintza egitasmoa 2020
Xabier Arana (Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen iraunkortasuneko eta Hezkuntzako Atal Burua)

18:00 / 20:00 Tokian-tokiko ekimen arrakastatsuak
Mugikortasun jasangarriarekiko apostua (Durangoko Udala)
Atez-ateko zabor bilketa sistema (Usurbilgo Udala)
District Heating beroketa sistema (Ispastergo Udala)
Ukanauto eta BIZIMETA alokairu sistemak (Uribe Kostako Mankomunitatea)

FILM BERDEA *Plateruena Kafe Antzokian*

17:00 INTO ETERNITY (2009, Michael Madsen, 75 min., Ingelesezt - azpitituluak gazt.)
22:00 BIKES VS. CARS (2015, Fredrik Gertten, 91 min., Ing-Port-Gazt - azpitituluak gazt.)

Otsailak 20, larunbata

Ordutegia: 10:00-14:30 / 16:00-21:00

ZIRKULO BERDEA

10:30 / 11:45 Quantum energy generator, Mitoa edota errealitatea? *
12:00 / 13:15 Ikasi zure elektrizitate faktura ulertzen (Goienerrek eskainitako ikastaroa)
13:30 / 11:45 Hidrogenoa, oraina eta etorkizuna *
17:00 / 20:00 Ludoteka

HITZ BERDEA

11:00 / 13:00 Hezkuntza, zeintzuk dira nire alternatiba berdeak
Repelega Institutua, Portugalete (Mixel Gomez, irakaslea)
Lea Artibai Ikastetxea, Markina-Xemein (Iagoba Bergara, irakaslea)
MONDRAGON UNIBERTSITATEA (Fernando Garramiola)
EHU-UPV, Eibarko ingeneritza eskola (José Ignacio San Martín, zuzendaria)

17:00 / 18:00 Batzuen zaborra, beste batzuen negozioa.**100% birzikled**

Paperezko ehungintza (Ainhoa Mujika)
Paleike, birziklaturiko paletekin egindako altzariak (Jesús Rivas eta Maitri Ugalde)

18:30 / 19:30 Euskal Herria eta bizikleta

25 urte pedalei eragiten hiri aldatzeko (Kalapie, Hiriko txirrindularien elkarte)
Bizikleta eta bere ekarpena Euskadiko mugikortasun jasangarrian (Ibon Hormaeche, Iniciativas ambientales)

Otsailak 21, igandea

Ordutegia: 10:00-14:30 / 16:00-20:00

ZIRKULO BERDEA

10:30 / 11:45 Zelula Termoelektrikoak, peltier/seebeck efektuak *
12:00 / 13:30 Maglev, lebitazio magnetiko/kuantikoa *
17:00 / 20:00 Ludoteka

HITZ BERDEA

12:00 / 13:00 Kontsumo zero, enpresa eta etxeetako esperientziak
Eroski Ali Gobeo (Xabier Esteban, Eroskiko ESK eta Jasangarritasun saila)
Passivhaus etxebizitza bat eraikitzearen esperientzia (Eva Isasi, Diego Arzanegui eta Lander Olabarri)

16:30 / 17:45 Eraginkortasun energetikoa etxean
Energia berriztagarriak eraikuntzan (Rubén Amparan, Lansolar)
Energia berriztagarriak etxeetan: Zein sistema aukeratu kasu bakoitzean (Josu Salazar, Ekidom)
Lastozko eraikuntzen garapena (Jose Luis Veiga, Ecopaja)
Errehabilitazio energetikoa eraikuntzen alde pasiboan (Patxi Padura, Efeuve Fachadas Ventiladas)

18:00 / 19:30 Toxikorik gabeko etxebizitza
Inhar Agirrezabal (Ari Arkitektura, Bioeraikuntzan masterra eta aholkularia)
Amaia Iriarte (Medikuntzan lizentziatua, Homeopatian espezializatua eta Erizaintzan diplomatua)

FILM BERDEA *Plateruena Kafe Antzokian*

10:30 WALL-E (2008, Andrew Stanton, 103 min., gaztelaniazt)
16:30 TIERRA PROMETIDA (2012, Gus Van Sant, 106 min., gaztelaniazt)
18:15 Baso ahaztuak (2013, I.Yurrebaso - I.Pujana, 61 min., euskaraz-azpitituluak gazt.)

* Luis Sutilek eskainitako ikastaroak

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



1.000 etxe gehiago batu dira organikoa birziklatzeko planera

Kontainer marroiak prest daude Zelaieta, Atxondo, Elorrio eta Zaldibarren



Amankomunazgoko ordezkariak eta proiektuaren bultzatzaileak, eguaztenean egindako aurkezpenean.

DURANGALDEA M.O.

Materia organiko begetala batzeko kontainer marroiak prest daude katean, eta horrela, Amankomunazgoak bultzatutako bigarren kanpaina martxan dago Abadiñoko Zelaieta auzoan, Atxondon, Elorrio eta Zaldibarren. 892 familiak eman dute izena, eta beharrezko kita eman diete. Gainera, 51 komertzio edo enpresa ere batu dira. Etxeko autokonpostajearen kasuan, 152 lagunek eman dute izena. Beraz, guztira, 1.000 etxe baino gehiago batu dira organikoa birziklatzeko planera, eta oraindik eman ahal da

izena. Aurretik, Iurretan eta Traña-Matienan, 371 familia dabilta sistemagaz.

%15 baina "Europatik urrun" Bigarren fase honetako zerbitzua atzerapenagaz dator, edukiontzien mekanizazio prozesuan arazoak izan dituztelako. Horregatik, barkamena eskatu du Aitor Lopez Amankomunazgoko presidenteak (EH Bildu).

Endika Jaiok azaldu du biztanleriaren %15era ailegatzea zela helburua, eta beraz, balorazioa baikorra dela. Baina, oraindik "Europatik eskatzen dena oso urrun" ei dago.

Bide horretan, zabor bilketa sistemaren egokitzapena egin gura dutela aurreratu du Jaiok. kontainer kopurua aldatu den arren, zerbitzua berbera delako.

Azterketa horretaz aparte, zaborra batzeagatik herriei kobratzeko modua ere aldatzea gura dute; orain arte, biztanle kopuruaren arabera ordaintzen zuten herriek, eta, aurrerantzean, hondakin kopuruaren arabera. Kamioiek, pisatzeko sistema bat edukiko dute. Neurri horren bidez, herrietan birziklapena igo ahal dela uste dute Amankomunazgokoek. Bizkaian neurri aitzindaria izango litzateke.

Emakumeen aurkako erasoak salatu dituzte

Eraso sexista bi egon dira Iurretan, aste honetan

IURRETA A.U.

Indarkeria sexistagaz lotutako bi salaketa izan dira aste honetan, Iurretan. Martitzen goizean, Zubiaurre kalean izan

zen bat, eta eguazten goizean bestea, Arriandin, N-634 errepidearen bazterrean. Erasororien aurrean protesta egiteko helburuagaz, kontzentrazioa



Anderebidek antolatutako elkarretaratze bateko argazkia.

deitu zuten atzo iluntzerako Iurretako Anderebide emakume elkarteak eta udalak.

Martitzenean, Zubiaurre kalean izan zen jazoera, 08:30ean. Gizon batek bere bikotekidea iraindu eta mehatxatu egin zuen. Eguaztenean izan zen beste eraso, 10:00etan, Iurretako paper fabrika parean, errepide bazterrean, bikote bat kotxetik irtendakoan. Eztabaida betean zirela, emakumea kolpatu izana leporatzen diote ertzainek gizonari.

Durangon, atxilotuta

Iurretakoak ez dira aste honetan emakumeen aurka egindako eraso bakarrak. Izan ere, Ertzaintzak jakin eragin duenez, eguaztenean, 16:30ean, gizon bat atxilotu zuten Durangon, Francisco Ibarra kalean, bere bikotekide ohia jo zuelakoan.

43 ikasle euskararen errefortzu klaseetan

Alkateak azaldu du "ikastetxeen aspaldiko kezka" izan dela euskararen errefortzu klaseena

ELORRIO M.O.

Herriko ikastetxeekin elkarlanean, euskararen errefortzu klaseak martxan ipini ditu Elorrioko Udalak. 43 ikaslek eman dute izena, eta astean bi orduz egingo dute euskara maila indartzeko ahalegina, era ludiko baten bidez, udaleko informazio iturriek azaldu dutenez.

Adierazi dutenez, "Elorriko ikastetxeek aspalditik egindako eskaera" da errefortzu klaseak antolatzearena. "Ikastetxeen aldetik aspaldiko kezka bat da. Izan ere, kasu askotan zaila

egiten da eguneroko dinamika aurrera ateratzea", azaldu du Idoia Buruaga alkateak. Iturri kultur etxean eta institutuan izango dira klaseak.

Buruagak gogoratu du herrian D eredua dagoela ezarrita, eta hori dela, aurrerantzean ere, eduki gura dutena. Bestalde, euskararen egoera hobetzeko lanean, umeen lanari garrantzia eman dio: "Elorrio euskaldun baten alde egin nahi badugu, gazteenengandik hasi beharko dugu, haiek baitira hizkuntza honen etorkizuna".

Pisu neurtuko asto proben

9. saria, datorren asteburuan

MALLABIA J.G.

Mallabiko pisu neurtuko asto proben 9. saria antolatuko dute, otsailaren 19tik 21era, Mallabiko Udalak eta Txondor herri kirol taldeak. Datorren barikuan, Janire Alegria, Miren Olabarrieta, Satxibar eta Ugalde arituko dira, nor baino nor gehiago. Otsailaren 20an,

berriz, Alegria, Construcciones Torrontegi, Irazola eta Maiora izango dira lehian. Azken jardunaldia otsailaren 21ean izango da. Erleaga, Taberna Zaharra, Egia eta Partiliku elkartearen txanda izango da.

Irabazleak 410 euro, manta, txapela eta garaikurra eskuratuko ditu. Dietak ere aurreikusi dituzte.

Antolatzaileek azaldu dutenez, baldintzen artean, pisaketa proba lehia hasi baino ordubete lehenago egingo dute, probalekuaren ondoan. Ekitaldi bakoitza 30 minutukoa izango da.

Eskolako jantokirako alternatibez, berbaldia

Astelehenean landuko dute gaia, 18:00etan

BERRIZ A.U.

Eskolako jantokietako kudeaketa ereduak ezagutzeko, mahai-ingurua antolatu du Berrizko Oka kultur elkarteak. Bazkariak kanpoko catering zerbitzu baten bidez egiten dira eskola gehienetan, baina eskola batzuetan badabilta jantokien bidez tokiko nekazaritza eta produktuak bultzatzen. Eredu horiek ezagutzeko asmoz antolatu dute solasaldia astelehenerako: 18:00etan, kultur etxean izango da.

Hiru pertsona gonbidatu dituzte mahai-ingurura. Hizlarietako bat Uxue Arbe da, eta berak EAEko eskola publikoetako jantokiei buruzko ikerketa bat egin du. Arbek eskola askotako ereduak ezagutzen ditu,

eta ikuspegi orokorra emango du. Berarekin batera, Larra-betzuko eskolako jantokiko arduraduna eta Urduñako udal sukalde kolektiboko arduraduna izango dira berbaldian. Larra-betzun, guraso elkartearen esku dago jantokiaren kudeaketa, eta Urduñan hori lortzeko bidean dira; herriko ekoizleen eta merkatarien produktuak erosten dituzte, eta, ondoren, eskolan prestatzen dute bazkaria.

Oka kultur elkartetik azaldu dutenez, gonbidatu bakoitzak aurkezpen labur bat egingo du, eta, ostean, galderak egiteko tarte izango dute bertaratzen direnek. Beste herrietako esperientziak ezagututa, Berrizen ere gogoeta egitea da elkarteko kideen helburua.

‘Anbotoren lagunak’: Euskara bultzatu eta abantailak lortzeko modu bat

‘Anbotoren lagun’-en kanpaina berria hasi da, euskarazko hedabidearen jarraitzaileei eskerrak



Kanpainagaz bat egin duten dende kartel bat dute ikusgai erakusmahaietan, Durangoko Color Plusekoek lez.

ERREPORTAJEA M.O.

Anbotoren lagun en kanpaina berri bat martxan dago, euska-

razko komunikazio proiektua babesten dutenen taldea handitzeko helburuz. Gainera, berri-

kuntzaz beteta dator: deskontu eta opari ugari eskainiko dira, laguntzaileen esfortzua esker-

tzeko asmoz. Euskara bultzatu eta abantailak lortzeko modu bat da *Anbotoren lagun* en taldeko kide izatea.

Deskontuak komertzioetan

Anbotoren lagun egiten direnek 30 euro ipiniko dituzte urtean, eta bueltan, hainbat abantaila izango dituzte eskura. *Lagun* izendatzen duten txartel berezia jasoko dute etxean, eta hori erabilia, deskontuak edukiko dituzte komertzioetan eta zerbitzuetan.

Jatetxeak, altzari-dendak...

Jatetxeak, altzari-dendak, museoak, gimnasioak, liburu-dendak edota optikak barnebiltzen dira, besteak beste, eskaintzan. Parte diren komertzioen zerrenda osoa etxean jasoko dute *lagunek*, txartelagaz batera. Ordaintzean txartela erakutsi, eta merkeago aterako zaie erosketa.

Zozketak, hilero

Bestalde, hilero, oparien zozketa bereziak egingo ditu ANBOTOk. Hile hasieran, zozketako sariak zeintzuk izango

diren iragarriko du, eta amaieran, irabazleen berri emango du. Otsailean, adibidez, Unamunzaga hortz-klinikako eskuila elektrikoa, Saltsan Katerineko dastaketa, Gau-tu dendako burko biskoelastikoa, Forum Sporteko pultsometroa eta Hitz liburu-dendako disko eta liburu bana dira sariak.

Horrez gainera, ANBOTOn argitaratzen diren iragarki laburretan eta eskeletan deskontuak egongo dira, eta urteko egutegia eta Turismo Gida ere jasoko dute kideek.



“Txartela Landako optikan eta Itai dendan erabili dut”

AXUN MORENO

Izena emateko?

Beraz, ANBOTO komunikazio proiektua babestuta abantailak lortu gura dutenek oraintxe dute aukera, *Anbotoren lagun* izanda. Izena ematea erraza da gainera, hauek dira aukerak: 94 681 65 58 telefonora deitzea, lagunak@anboto.org helbide elektronikora idaztea edota www.anboto.org webguneko formularioa betetzea.

Axun Moreno elorriarra da lehendik izena emandakoe-tako bat. “Txartela, Landako optikan eta Itai dendan erabili dut”. Komertzio gehiago batzeko nahia agertu du. Aspaldiko *anbotozalea* da, eta irakasle lanean prentsa tailerrean erabili izan zuen astekaria.



“Txartela erabiltzeko aukerarik ote dudan begiratzen dut”

Maite Areitioaurtena
Abadiño

‘Anbotoren lagun’ izendatzen duen txartela erabiltzen hasi da Maite Areitioaurtena, eta opari bat ere jaso berri du zozketan.

Zergatik egin zinen ‘Anbotoren lagun’?

Gertutik ezagutzen dut proiektu horren atzean dagoen esfortzua, inplikazioa... Eta, nolabait laguntzeko beharra sentitzen nuen.

Forum Sporteko pultsometroa tokatu zaizu zozketan. Txartela sarri erabiltzen duzu?

Ez da denbora asko txartela jaso nuela, baina zerbait erosi aurretik, begiratzen dut ea txartela erabiltzeko aukerarik ote dudan.

Zer iruditzen zaizu ANBOTOk txartelagaz egiten duen eskaintza?

Aukera zabala dago, eta esango nuke horrek erraztu egiten duela txartela erabiltzea.

Astero irakurtzen al duzu ANBOTO?

Barikuetan, lanetik etxera bueltan, ANBOTO postontzian hartu eta berau irakurriz bazkaltzea gustatzen zait. Webgunean ere begiratzen dut, noizbehinka.



“Gaur egun ere beharrezko ikusten dut ANBOTO”

Igone Ikobaltzeta
Mañaria

Durangaldeko hedabidea euskarari bultzada emateko tresna lez ikusten duelako babesten du.

Hasieratik zara proiektuaren jarraitzaile.

‘Eraz’ izan zen Durangaldeko euskarazko lehen hedabidea, eta harekin bezala, ANBOTogaz irakurtzen ditugu berriak euskaraz. ‘Eraz’-en sasoiaren eskertu nuen, eta gaur egun ere beharrezko ikusten dut, euskarari bultzada emateko. Nire inguruan, nigandik hasita, euskaraz hitz egin arren, irakurtzeko zaletasuna ez da egon horren errotuta. ANBOTOk *behartu* egin gaitu euskaraz irakurtzera.

Txartela erabiltzen hasi zara?

Orain dela hilabete bat jaso nuen, eta momentuz ez dut eduki beharrianik. Hala ere, aldean eramaten dut, eta aukera sortuz gero erabiliko dut.

Zelan irakurtzen duzu ANBOTO?

Barikuetan, jaso bezain laster, gauean lasai-lasai gaudean irakurtzen dut. Herririk herri gertatzen denaren berri izatea gustatzen zait, eta baita elkarrizketak ere. Azkenengo orriko elkarrizketa dut gogokoen. Buelta eman eta beti egoten da sorpresaren bat.



“Ondo iruditzen zait txartelagaz abantailak ematea”

Jurgi Barreña
Durango

Kanpainan eskaintzen diren abantailak zalantzan dagoenarentzat bultzada lez ikusten ditu Barreñak. ANBOTO Interneten eta paperean jarraitzen du.

Zergatik hartu duzu ANBOTO babesteko kanpainan parte hartzeko erabakia?

Beharrezkoa ikusten dudalako kalitatezko euskarazko toki komunikabide profesional bat izatea Durangaldean.

Zelan baloratzen duzu txartelagaz egiten den eskaintza?

Ondo iruditzen zait kideentzako txartelagaz abantailak eskaintzea. *Anbotoren lagun* izateko zalantzan dagoenarentzat, falta zaion bultzada izan daitekeela uste dut.

ANBOTO astero irakurtzen duzu? Eta webgunera sartzen al zara?

Bai. Webgunean sarri begiratzen dut, albisteak unean bertan ezagutzeko, eta asteburuetan ANBOTO patxada gehiagorekin irakurtzeko ohitura daukat. “Herririk herri” iruditzen zait denetan atalik interesgarriena.

Eskolan eta Indusibiden jarri gura dituzte auzo konpost gune berriak

Eskolakoari lehentasuna emango diote, hezkuntzan eragiteko modua delako; Indusibiden bigarren bat egokitu gura dute, eskaera handiari erantzuteko

OTXANDIO J.Derteano

Iazko azaroan, hondakin organikoekin auzo konposta egiteko proiektu pilotu bat martxan jarri zuten Indusibide inguruan. Herri-Olako Zero Zabor taldetik irten zen ideia, eta eurak dira egitasmoaren gidari. Harrezkerro, hiru hile joan dira, eta orain arteko balorazioa positiboa da: “Erantzun oso ona izan du, eta gero eta eskaera gehiago heltzen dira”, dio Arkaitz Carrasco Zero Zabor taldeko kideak. Horregatik, inguru hartan berri bat sortu gura dute.

Indusibideko auzo konpost gunea “txiki” geratzen ari dela onartu du Juan Mari Otxandiano udaleko zinegotzi eta Zero Zabor taldeko kideak: “Konposta egiteko lau ontzi ditu, eta hile eta erdian bat bete egingo dela

aurreikusten dugu”. Horregatik ikusten dute beharrezkoa inguru hartan berri bat jartzeko: “Jendea parte hartzeko itxaroten dabil”.

Baina, gune berri horren aurretik, auzo konpostaren hurrengo jomuga Otxandioko eskola izatea gura dute. Konpost gune bat sortu gura dute jantzikiko hondakineterako. Asmo horri lehentasuna eman diote eta gaztetxoak apurka birziklapenaren garrantziaz kontzientziazten joatea da helburua. Iñigo Ramos eskolako zuzendariari “oso ideia ona” iruditzen zaio, eta asmoagaz aurrera egiteko prest daude. Baina, gazteentzat eragin hezitzaile eraginkorra izan dezan, aurrean bat eskatzen die, eta dena ondo planifikatu beharra dago. Hori landu

bitartean, sukaldariak izango lirateke hondakinak konpost gunea eramateko arduradunak. Gaztetxoak bigarren fasean gehituko lirateke.

Diru-laguntzen zain

Udalak diru atal bat gorde du aurrekontuan Zero Zabor batzorderako. Auzo konposterako bi gune berriak egiteko adina emango du. Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundira diru-laguntza eskaera egin dute, eta horren bidez estali gura dituzte zaborraren birziklapena sustatzeko ekintzak. Aldundiko erantzunaren zain daude.

Auzo konpostaz gainera, hondakin organikoak kudeatzeko bide gehiago ere ireki gura dituzte: auto konposta eta bosgarren kontainerra.



Indusibide inguruko auzo konpost gunea.

Sokamuturra bai ala ez, herritarrei galdera

Jai batzordeak herritarren iritzia jakin gura du

OTXANDIO J.D.

Jai Batzordeak Santa Maña jaietako hainbat konturi buruz otxandiarrek duten iritzia jakin gura du. Herrian zabaldu dituzten karteletan jasotzen den puntuetako bat sokamuturrari buruzkoa da. Bigantxei ematen zaien tratua, eta inori ezer gertatuz gero arduetan izan dezakeen eraginaren inguruko kezka dira hausnarketarako proposatzen dituzten ideietako bi. Bide horretatik, “Zer irizten diozu sokamuturra kentzeari?”, galdetzen dute.

Aurten txupinazo eguna, uztailaren 17a, domeka da, eta txupinazoa arratsaldean beharrezko eguerdian botatzea herritarrei

zer iruditzen zaien ere jakin gura dute. Gai horiei zein bestelakoei buruzko iritziak jasotzeko jaiatzordea@gmail.com helbide elektronikoa eta 648 26 52 46 zenbakiko whatsapp bideratu dituzte.

Ikastaro berria

Kultura batzordeak ere herritarren iritzia jakin gura du zer ikastaro antolatu jakiteko: www.otxandio.net edo kultura@otxandio.net helbidera bidali daitezke ekarpenak, otsailaren 22a baino lehen. Egun berean amaitzen da harreman eta emozio positiboaren gainean antolatu duten ikastarorako izen-ematea ere.

Bizkarra zaintzeko ikastaroan murgilduta

MAÑARIA M.O.

Ursula Donea nagusien elkar-teak eta Amankomunazgoko adinekoen sailak antolatuta, bizkarra zaintzeko ikastaroan murgilduta daude 11 jubilatuta, otsailaren 3az geroztik. Eguazten honetan egin dute bigarren saioa, eta oraindik beste bi falta zaizkie. Hilaren 17an eta 24an izango dira saio horiek, hain zuzen ere, 17:00etatik 18:30era bitartean, herriko jubilatuen egoitzan.

Adinekoen sailak hainbat ekintza prestatu ditu Durangalderako, eta horietako bat da Mañarikoa. Helburua kolektibo hau suspertzea da, zahartza- ro aktiboa eta pertsona nagusien autonomia sustatuz.

Udala eta eragileak berdintasunaren bidean

II. Berdintasun Plana onartu du udalak

ZALDIBAR A.B.

Zaldibarko Udalak II. Berdintasun Plana onartu du azken udalbatzarrean. Ekimen honen helburu nagusia “herri moduan benetako berdintasunerantz urratsak ematen jarraitzea” dela azaldu du Jone Arriolabengoa berdintasun teknikariak. Gaineratu duenez, “berdintasun plan honek udalaren funtzionamenduan berdintasun irizpideak zehar-lerroko gisa txertatzen jarraitzeko pausoak zehazten ditu, alde batetik, eta, herrira begira, berdintasuna sustatzeko ekimenen norabidea, bestetik”.

Bestalde, udala osatzen duten kideen eta herriko eragileen

ikusuntuak kontuan hartuta euskarri bat eratu dute, datozen lau urteotarako erronka nagusiak finkatuz. “Alde batetik, udalaren barne-antolamenduari dagozkion helburu eta neurri zehatzak aipatzen dira planean, berdintasun ikuspegia udaleko eremu guztietara ahalik eta modu eraginkorrean zabaltzeko helburu nagusiarekin.

Bestetik, herri mailako helburuei dagozkien neurriak ere zehaztu dituzte, hiru ardatz nagusiren baitan: emakumeen ahalduntzea eta balioen aldaketa, gizartearen antolaketa erantzukidea, eta emakumeenganako indarkeria sexista desagerraraztea.

OTSAILEKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558

HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDa
Jasone Osororen “12etan bermuta” liburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen “Amalur” CDa.

UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA.
ESKUILA ELEKTRIKOA
Hortzetako eskuila elektrikoa PC800 sensitive ORAL-B.

SALTAN KATERIN.
EGUEN SALTAN
Kalitate handiko produktuen dastaketa, 2 pertsonentzat. 4 egile-pintxo, 2 ardorekin lagunduta.

GAU-TU.
BURKO BISCOELASTIKOA
Burko biskoelastikoa 150 zm-ko oherako.

FORUM SPORT.
PULTSOMETROA
Polar FT1 modeloa eta uhala. Iragazgaitza.

ABANTAILAK

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

Herritarrek erabakiko dute zelako Apata gura duten

Proposamenak jasotzeko prozesu parte-hartzailea hasiko dute gaur



Gaurko aurkezpenean loreak erabiliko dituzte, herritarrengana heltzeko bitarteko moduan.

ATXONDO J.Derteano
Apatako espazio publiko osoa —kaleak, plazak, errepeideak, zebrabideak...— berrantolatze-ko plan bat egingo du Urak Bide Taldeak, udalaren aginduz. Hori zelan egin jakiteko, herritarrengana joko dute. Herritarrek erabakiko dute zelako Apata gura duten: “Herri bateko kaleak eta espazio publikoa zelan hobetu jakiterako orduan, aditu nagusiak ez dira bulegoetan daudenak, herritarrek baizik. Eurak dira eguneroko erabiltzaileak”, dio Urak Bide Taldeko Kimetz Munitxak.
Logika horren barruan, Kale Irekiak izeneko prozesua hasiko

dute barikuan, 16:00etan, plaza inguruan egingo duten aurkezpenean. Proiektuko teknikariak hantxe egongo dira herritarrei zuzenean proiektuaren berri ematen: “Lanketa kolektibo bat izan dadin nahi dugu”.
Atxondarrek esateko dutena entzuteko hainbat hitzordu prestatu dituzte, martxoaren 15era bitartean. Batzuk orokorrak izango dira, eta beste batzuk kolektibo zehatzei bideratutakoak: esaterako, ‘Emakumeen topaketa’ deitu dute otsailaren 17an, 16:30ean, udaletxean, eta Nagusiei zuzendutako topaketa otsailaren 18an, 17:00etan, udaletxean. Martxoaren

5eko deialdian, aldiz, mugikotarsunaren aldetik dauden trabak aztertuko dituzte: “Lan saio errazak izango dira, edonork parte hartzeko modukoak”.
Haurrek esateko dutenari ere arreta berezia jarriko diote. Otsailaren 22tik 26ra lau lan saio egingo dituzte hurrekin, herriko eskolagaz elkarlanean.
Prozesua amaitzean, talde teknikoak bitartekari lana egingo du, herritarrek esandakoak osotasun ikuspegia duen plan batean batzeko. Ondoren, ekainean, herritarrek lehentasunak markatzeko aukera izango dute. (Egitarau osoa anboto.org webgunean)

Pilotalekua erabiltzeko arau berriak indarrean joan zen astetik

IZURTZA J.D.
Frontoiko erabilera arautzen duen ordenantzari hainbat aldaketa egitea onartu zuten iazko azaroko udalbatzarrean. Aldaketek ez dute alegaziorik jaso eta joan zen astetik indarrean da. Frontoi irekia da, baina gura dutenek erreserbatu egin dezakete (udaletxean edo liburutegian). Erabilpena doakoa izaten jarraituko du izurtzarrentzat, eta lau euro kanpokoentzat. Argindarra, berriz, euro bat herrikoentzat, eta lau euro gainerakoentzat.

Nagusiei eskainitako berbaldia antolatu dute

GARAI M.O.
Otsailaren 24an, herriko nagusiei eskainitako berbaldi bat egongo da, Garain. *Belaunaldien arteko hartuemanak* deitzen da berbaldia, eta Durangaldeko Amankomunazgoko adinekoren sailetik antolatutakoa da. Psikologo batek gidatuko du hilaren 24ko saioa, arratsaldeko 17:00etan aurrera, kultur etxean.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
EH Bildu



Iranen euririk ez?

Lotsagarria da euria egiten duen egun batean Durangon dagoen tren geltoki bakarrean trena hartzea. Hobe esanda, auzo-lotsa sentitzeko modukoa da, urteko edozein egunetan, Durangoko geltokira sartzea. Lotsagarria eta arrisku-tsua, biak batera.
Eskailera aldapatsuak eta labainkorak, lehenengo; ur putzu erraldoiak, ostean; eskailera gehiago, gero; eta berriro lur bustia nasaraino, bukatzeko. Durangokoa ez da lur azpiko geltokia, ur azpikoa baizik.

Iraneko arkitekto batek diseinatu zuen estazioa, Durangon trena sekula hartuko ez duena

Proiektu megaloma-noak modan zeuden garaietako ondorioetako bat da. 20 milioi euroko kostua izan zuen, fakturak arinkeriak sinatzen ziren garai hartan (ordaindu, ordea, urte luze-tarako hipoteka astunarekin egiten dira).
Iraneko arkitekto ospe-tsu batek diseinatu zuen estazioa, Durangon trena sekula hartu ez duen eta hartuko ez duen arkitekto batek. Baina larriena da proiektuari oniritzia eman ziotenek ere, Durangon gutxitan hartu dutela trena. Durangoko udaleko azken plenoan ere konponketak egitearen aurka bozkatu zuten. Zer daukate, bada, Durangoko herritar xumeen aldarrikapenen aurka?

DURANGALDEA ASTEON

Sagardotegirako irteera bi aukeran, lurretan

IURRETA > Sagardotegira joateko irteera bana antolatu dute Anderebide emakume elkarteak eta Goiuriko Ama nagusien elkarteak. Emakumeek hilaren 20an egingo dute, eta 14ra arte eman ahal da izena, 616 490 506 telefonora deituta. Nagusiek, oster, martxoaren 2rako ipini dute hitzordua.

Tabakoa uzteko ikastaro berria, prest

DURANGALDEA > Amankomunazgoak tabakoa uzteko ikastaro berria antolatu du, eta martxoaren 17an hasiko da. Izena eman gura dutenek otsailaren 29a dute epemuga. 94 620 05 20 telefonora deitu ahal dute horretarako. Antolatzaileek azaldu dutenez, hamar saiotan burutuko da ikastaroa.

AHTaren aktei uko, Elorrion eta Atxondon

DURANGALDEA > Bilbon, Espainiako Gobernaren ordezkarietan sinatu behar zituzten, eguaztenean, Abadiño-Atxondo tarteari dagozkion aktak, baina ez zuten horrelakorik egin. Bi herrietako udalek eta hainbat herritarrek alegazioak aurkeztu dituzte, prozedura egokia jarraitu ez dutela argudiatuta.

IRITZIA

Titiriteroez

Kaixo atzera ere, irakurle. Aurreko alean agurtu ginen, baina egunerokoak fikzioa gailentzen duela erakutsi digu berriro ere, eta ezin isilik egon. Titiriteroez ari gara, benetan sinestezina delako sortu den katramila.
Hitz egiteko asko ematen du, baina guk ANBOTOn kaleratu ditugun zutabeetan bezala, gure ogibidetik helduko diogu gaiari, eta horretarako onena emanaldiaren iturrira jo dugu, gauzak hasieratik trakets egin zirela uste dugulako.
Lehenik eta behin, programatzailearen akatsa nabarmendu nahiko genuke, emanaldi bat ikusi barik kontratatzearen, kudeatzen duen (orain, zuen) egitasmorako proposa den jakiteke, eta kontratatuko duen lanaren profesionaltasunaren inguruko gogoetarik egiteke, 500 km egin behar duen konpainiak 2 emanaldi hain merke egiteak susmoren bat piztu beharko bailioke. Akaso,

ofizioaren duintasuna aldarrikatzeko adibide bihurtu da kasu hau, programatzea hutsuneak ahalik eta merkeen betetzea baino zerbait gehiago dela erakutsi duelako.
Eta, bigarrenik, kokoteko bat konpainiarentzat ere, edozein baldintzatan baiezkota ematearren, lanaren egokitasunari erreparatu barik. Badakigu krisiak halakoetara eramaten gaituela, baina ezetz esaten jakitea ere komeni da.
Ikusiak ikusita, argi dago merkea garesti ateratzen dela, are gehiago tartean interes politiko eta mediatikoak daudenean, tamalgarria benetan, antzerkiarentzat eta profesioarentzat. Bihoa hemendik gure elkartasuna neurritz kanpo zigortu diren programa-tzaile eta titiriteroei. Zirkio mediatiko – politikoarentzat bazka izan baitira.

Arantza Arrazola eta Maider Larrañaga

astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Miski Cruz (1969), Ane Ortuondo (1986) eta Saioa Agirre (1979) | 'Gorka etxera' plataformako kideak | Durango

“Argi dugu etxean behar duela; berea duen eskubidea aitortu behar zaio”

“Esku artean, denon artean heldu beharreko arazo larria dugula” azaldu gura du sortutako plataformak



> **BERBAZ** Aitziber Basauri
Larriki gaixo dauden 11 presoek zerrendan dago Gorka Fraile durangarra. Mingainean minbizia sendatzeko ebakuntza egin zioten, ekainean. Orain, 'Gorka etxera' plataforma aurkeztu dute. 18 urte egingo ditu kartzelan Frailek. Badajozen dago.

'Gorka etxera' plataforma aurkeztu duzue. Zein da helburua?

Ane Ortuondo: Gorka etxeratzeari dugu helburu. Argi dugu gaixotasun larri baten esklabu dela, eta, momentu honetan, espetxeak ez dizkio sendatzeko beharrezko baldintzak ematen. Non hobeto etxean baino? Etxera ekarri behar dugu, berandu baino lehen, gainera.

Ekainean, minbiziari aurre egiteko ebakuntza egin eta gero sortutako ekimena da.

Saioa Agirre: Hala da. Ebakuntzaren ostean izandako 'impasse' egoeratik irtenda, Durangon plataforma bat sortzeko premia ikusi genuen. Gorka gaixorik dago, eta ebakuntza ondo joan zen arren, zerbait egitea erabaki genuen. Lehenengo, Ane eta biok elkartu ginen; gero, haren lehengusinarekin, Ainhoarekin. Horrela sortu zen plataforma, txikitik handira. Bizpahiru hile

“*Gaixotasun larri baten esklabu da, eta espetxeak ez dizkio sendatzeko baldintzak ematen*”

dira hasi ginelarik, eta gero eta jende gehiago etorri da.

A.O.: Bizkaian badaude plataforma batzuk: 'Iparra galdu barik' edo 'Txus askatu'. Horiak eredu hartuta, Gorkaren lagun batzuk plataforma sortzeko lanean hasi ginen.

Gorka etxeratzeko kanpaina abiatuko duzue. Zertan datza?

A.O.: Esku artean arazo berrak lortu behar ditugu. Gorka etxera ekartzea ez dugula lortuko azaltzea da helburua. Horretarako, interpelazio kanpaina bat abiatuko dugu, hainbat eragilek. Gorkari gertatzen zaiona herriak jakitea gura dugu; eskubide bat urratzen zaiola, eta etxean egon behar duela. Herrialde mailan ere lan egingo dugu. Galdakao eta Ondarroagaz batera, hainbat ekimen abiatuko ditugu.

S.A.: Udalagaz eta hainbat eragilek harremanetan jarriko gara. Hainbat ekimen abiatuko ditugu herri mailan, Gorkak bizi duen egoeraz informatzeko.

Udalagaz izan duzue lehenengo hartuemanik?

A.O.: Bozeroale Batzordeagaz batu da senide bat, egoeraren berri emateko. Bilera positiboa izan zen. Egoeraz sentsibilitatu eta jabetzea lortu zela uste dugu, baina, egia da bakoitzak bere mugak dituela. Hortik aurrera, helburu zehatzak eskatzen hasiko gara. Alderdi politikoetan sentsibilitate desberdinak daude, baina kontziente dira egoera larria dela. Udalak honetan guztian laguntzea espero dugu.

Zelan dago orain Gorka?

Miski Cruz: Animatuta dago, baina, metastasia sortuko zaion beldurragaz. Minbizia ez da berdina errotan kartzelan edo etxean: estresagaz, txarto janda, inpotentziagaz, kalean izango lukeen jarraipen medikorik gabe, erietxera irteerak eskuburdirak jarrita eta polizia inguratuta egiten ditu... jarraipen mediko duinagaz bizimodu lasaia eraman beharrean. Minbizia berrirori sortuko zaion beldurra du.

axiala egingo diote. Denbora honetan guztian egingo dioten aurreneko proba da; ia urtebete da. **A.O.:** Baldintzak baretu diren arren, probarik egin gabe, konfiantzazko medikuarekin gabe, jarraipenik gabe... darrai.

Tratu duina bermatzeko, Euskal Herrira ekartzea al da bidea?

A.O.: Argi daukagu etxean egon behar duela. Beste hainbat presogaz egiten den lez, berak duen eskubidea aitortu behar zaio.

S.A.: Euskal Herrian bai, baina, etxean. Familia, senide eta lagunekin; ingurukoekin, konfiantzazko medikuarekin eta tratamendu egokiarekin. Kalean den edozein pertsona ere errotan lukeen tratamenduarekin. Egokiena eta duinena etxera ekartzea da.

Dispertsio politikaren ondorioa da bizi duen egoera?

S.A.: Zuzenean eragiten dion beste faktore bat da, bai. 700 kilometrorat dago, eta familia hemen dago. Zuzenean eragiten du.

A.O.: Tentsioa eta ardura sortzen du jakiteak senideek horrenbeste denbora egiten dutela errepidean. Baina, gehiago ere badago: hamar laguneko zerrenda, gutun guztiak irakurtzea... Ebakuntza egin eta hiru hilera jaso ditu animoak. Hori guztia espetxe politikaren parte da.

Instituzio edo eragileengandik zein erantzun espero duzue?

A.O.: Seguru gaude etxera ekarriko dugula. Baina, instituzioen eta herriaren inplikazioa ezinbestekoa da. Gainera, hau ez da arazo politiko bat, giza eskubideez ari gara, azken erabakia politikoa bada ere. Herriarorok dugun eskubideaz ari gara. **S.A.:** Ez da gai erraza; gai larria da. Gaixorik dago, larri. Kartzelan dago eta etxera ekarri behar dugu. Baina lan handia egin behar da; jendea sentsibilizatu. Oztoporik ez jartzea gura dugu; egingo den lanketa ez tratatzea.



Gorka Fraile, bost urte bete berri dituen alaba ilazkirekin.

Sorkun Rubio | Abeslaria | Errenteria, 1977**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Hilabeteko atsedenaldiaren osteko lehenengo kontzertua da biharkoa, Plateruenean. Gogotsu berriro jotzeko?

Bai, Durangokoaren ostean, gainera, baditugu beste data batzuk zehaztuta, sei bat dauzkagu momentuz. Kontzertu asko lotzea da orain behar dudana: egutegia errotulagailu berde fosforitoz markatuta ikustea da behar dudana. Poz ikaragarria ematen digu horrek: diskoa kaleratzean egin duzun apustuak erantzuna baduela ikustean esaten duzu: “Eskerrak!”.

Zelako sentsazioak eduki dituzu orain arte birako emanaldietan? Oso sentsazio onak eduki ditugu. Entzule batzuek nik baino hobeto dakizkitez kantak, eta poz ikaragarria ematen du horrek. Orain arte egin dugunetik desberdina da disko honetarako egin duguna: rock & rolletik aldentu gara. Beste estilo bateko kantak dira konposatu ditugunak, eta nik ere rol desberdina dut eszenatokian. Erronka handia izan da *Ziklomorphosia*.

Estilo berriari helduta, publiko zabalago batengana ailegatzea lortu duzuela uste duzu?

Ez da erraza jakiten, baliteke aurrerago ikustea hori horrela den, baina ez dakit. Edozelan ere, uste dut nire musika ezagutu duenak badakiela nire disko bakoitzagaz saiatzeko naizela zerbait berria eskaintzen, eta irekia egoten da. Beti disko berdintsua egitea berme bat da, baina nik nahiago dut apustu

“Azken urteotan bizitako prozesu zail hori dago disko honetan islatuta”

‘Ziklomorphosia’ disko berriko kantak zuzenean eskaintzera etorriko da Sorkun, bihar, Plateruenera



egitea, eta gauza berriak eginez esperimentatzea. Hori bai, jakinda, batzuetan ondo ateratzen dela eta bestetan ez horrebeste.

Aurreko diskoen kontzertuetan baino gehiago dantzatzeko da jendea? Giroa desberdina da?

Argi eta garbi, bai. Musika beltza da diskoaren bizkarrezurra, eta zeozelan behartu egiten dugu publikoa dantza egitera. Dantzarako gogoagaz etortzen

da jendea bira honetako kontzertuetara. Emakume mordoa egoten da kontzertuetan, eta joera handiagoa dute dantzarako.

Bestelakoa izango zen Sorkun & Vicepresidentes proiektuagaz emandako birako giroa...

Bai, disko hura stoner-rock disko ortodoxoa izan zen, eta horregatik joan ginen Kaliforniara, produktore jakin batez lan egitera. Edozelan ere, estilo dan-

tzagarriago hau gustuko izango ez duten emakume rockero mordoa ere egongo da...

Zeu zara aipatu duzun rockera horietako bat? Ala ez duzu zure burua rokeratzen?

Rockeratzen dut nire burua, bai; asko disfrutatu izan dut hardcoreagaz eta rock & rollagaz. Egia esan, momentu honetan, apur bat nekatuta ere banago rockagaz. 2014an Kashbadekin zortzi

hilabeteko bira bat egin nuen, eta oso ondo pasatu genuen. Nork daki, beharbada, disko rock & rollero bat egingo dut urte batzuk barru berriro. Ez dakit... Izan ere, “bakoitzak egin dezala momentuan gogoak ematen diona!” da nire *leit motiv-a*.

Estilo batetik edo beste batetik gertuago, barruak eskatu dizuna egin izan duzu beti?

Bai. Izan ere, horixe baita, nire ustez, askatasun kreatiboa. Sortzaile baten askatasuna hor dago, nire ustez. Askok disfrutatzen dut askotariko musika estiloak kantatzen; bossa nova, reggae edo soul abestiak kantatzen asko disfrutatzen dut, esaterako, eta gauza asko probatzea gura dut: musikari desberdinekin jotzea, konposizioan ere lagun desberdinekin aritzea...

Eider Rodriguez idazlearekin kolaboratu duzu, oraingoan, letrak idazteko, ezta?

Bai, Eider Rodriguezek idatzirikoak dira letra gehienak, eta badago Harkaitz Canoren beste bat ere, esaterako. Argi neukan nire euskara maila mugatua dela, eta idazle bati eskatuko niola *Ziklomorphosia* diskorako hitzak idaztea. Eiderrek idatzi du, baina nire bizitzari buruzkoa da diskoa, eta berba asko egin dugu adierazi gura nuenaren inguruan. Oso benetakoa da diskoa.

Sorkunen indarberritzearen kontakizuna, disko batean

Zazpi urteren ostean, bakarkako lan berria du



Bakarkako bosgarren lana du Sorkunek ‘Ziklomorphosia’.

Elkarrizketan azaldu duenez, ziklotimia gaixotasunaren sintomak diagnostikatu zizkioten, orain urte batzuk, Sorkuni, eta bere azken diskoaren izenburuak esperientzia horri egiten dio erreferentzia. Aldartearen gorabehera handiak izateari esaten zaio ziklotimia; antsietetik depresiora denbora tarte oso laburrean igarotzeari.

“Koadro ziklotimikoa diagnostikatu zidaten arte, gaizki nengoen, ez nekien zer gertatzen zitzaidan, baina ez nengoen ondo”, azaldu du abeslari oreretarrak. “Askok lasaitu ninduen gertatzen zitzaidanari izena ipini ahal izateak”.

Aurreko lana kaleratu zutenetik zazpi urte igarota, “disko bat egiteko gogo ere galdua” zuela kontatu du Sorkunek: diagnosiaren ostean, hobeto sentitzen hasteagaz batera,

sortu zitzaiola berriro musika egiten hasteko grina. Eta gogo eta energia horretatik sortutakoa da, bihar, Durangoko Plateruenean aurkeztuko duen *Ziklomorphosia* diskoa.

Musika beltza, letra ilunak

Musika beltzaren erritmo biez, alaitasunak eta bizitasunak, eta hitzen gordintasunak kontraste berezia sortzen dute Sorkunen azken lan honetan. Musikariaren berbetan, “azken urteetan bizi izan dudako prozesu zail hori dago diskoan islatuta”, eta horregatik daude hitz hain ilunak. Baina, Sorkunek zehaztu duenez, “nahiz eta diskoko kantetako hitz gordin horiek prozesu gogor horren errealitatea kontatu, disko alaia egin gura nuen”. Musika bitartez lortu du bilatzen zuen oreka hori.

‘Heroiak’, gerrako beteranoen bizipenak Berrizko Kultur Etxean

Jose Ramon Soroiz, Kandido Uranga eta Ramon Agirre dira antzezlaneko protagonistak

> **ANTZERKIA** J.D./J.G.

Heroiak antzezlanak geldialdia egingo du asteburuan, Berrizen. Biharko jarri dute hitzordua, 20:00etan, kultur etxean. Jose Ramon Soroiz, Kandido Uranga

Hiru beterranoek egoitza horretatik ihes egitea pentsatzen dutenean hasiko da abentura

eta Ramon Agirre dira antzezlaneko protagonistak. Gerran ari-tutako hiru soldaduren papera egiten dute, eta zaharren egoitza batean daude. René errena da, Gustavek agorafobia du, eta Fernandek zorabioak ditu buru barruan duen metraila zati baten

erruz. Hiru beterranoek egoitza horretatik ihes egitea pentsatzen dutenean hasiko da abentura. Ekoiztetxeko arduradunek antzezlan hau ikusi zutenean, “harrapatuta” gelditu ziren. “Antzezlan hau ikusi genuenean hunkituta gelditu ginen. Denetarik dauka”, azaldu du Xabier Agirre Txalo ekoiztetxeko arduradunak. Umoreaz gainera, oinarrian dramatismoz betetako istorioa kontatzen dutela aurreratu du Agirrek. “Bizitzan beti aurrera egin behar dela azaltzen du obra honek, egoera larrian egon arren. Gaineratu duenez, “protagonistetako batek metraila pusketa bat du buruan, baina, hala ere, ez du hiltzeko gogorik. Aurrera egin nahi du. Horregatik ikusten du leku horretan jarraituta hil egingo dela. Horre-



‘Heroiak’ antzezlanaren irudia. Txalo.

gatik ihes egin gura du. Beste bi protagonistek ere, bakoitzak bere arrazoiengatik, handik irten gurako dute”. Hortaz, antzezlan osoa umorez bustita dagoen arren, bere sakontasunean, aurrera ateratzeko bidea bilatzeko ibilbidea azaltzen da.

Antzezlanaren egilea Gerald

Sibleyras da. Testu hau Maribi Arrietak frantsesetik gaztelaniara itzuli du. Ondoren, Ramon Agirrek gaztelaniatik euskara-
ra itzuli du.

Oraingoan Berrizera joateko modurik ez dutenek martxoaren 18an beste aukera bat izango dute, Elorrioko Arriolan.

Fetén Fetén taldea musika eta gastronomia nahastuz, Zornotzan

Eguneko kontzertuan Julen Baz sukaldariak ere hartuko du parte

> **MUSIKA** P.B.

Otsailaren 18an, ostegunean, 20:30ean, Gaztelako Fetén Fetén folk taldeak emanaldia emango du Zornotzako Zelaieta zentroan. Jorge Arribas eta Diego Galaz bikoteak osatutako taldeak Urtza tabernako sukaldaria den Julen Baz laguntza izango du. Bertan, musika popularra eta gastronomia nahastuko dira. 6 euroko prezioa izango du sarrerak.

Musika, dantza eta gastronomia nahasten dituen *Zazpi eguzki*, *Zazpi ilargi* festibal portugaldarrean ezagutu zuten elkar Fetén Fetén taldekoek eta Julen Baz sukaldariak. “Han ezagutu genuen Julen, eta, orduan, proiektu bat batera egiteko ideia sortu zen”, dio Jorge Arribasek.

Zornotzako kontzerturako Baz sukaldariari gonbit egin zion Fetén Fetén taldeak gastronomia musikarekin nahas-



Jorge Arribas eta Diego Galaz bikote burgostarrak osatzen du Fetén Fetén taldea.

teko.” Julen oso adierazkorrak iruditu zitzaizkion gure abesten letrak, eta hori dela eta, pintxoak egitera igoko da esze-

natokira gurekin”, adierazi du. Eszenatokiko bazter batean sukalde txiki bat jarriko dute. “Musika jotzen duten bitartean,

ni kozinatzen ariko naiz, eta jendeak pintxo horiek dastatzeko aukera izango du”, dio Julen Baz zornotzarrek.

GEURE DURANGALDEA

**LIBE
MIMENZA**
Kazetaria



Maitasuna (ez) da

Historia idazleek diotenez, Lupercusen erritoetan dauka jatorria San Balendin egunak. Erroman, otsailean, ugalkortasunaren festa paganoa ospatzen zen. Bertan, besteak beste, loteria bat egiten zuten emakumeak zozkatzeko. Gizonek emakumeen izenak kutxa batean sartzen zituzten lehenbizi, gero, bat aukeratu, eta huraxe bilakatzen zen beraien urte osorako gozamenerako andregai. V. mendean debekatu zuen kristautasunak tradizio hura, eta orduan izendatu zuten otsailaren 14a maite-minduen egun; data horretan hil zutelako Balendin izeneko apezpiku bat, hain zuzen, gudu-zelaian errendimendu hobia izan zezaten soldaduek ezkontzea debekatuta zuten garaian, hala nahi zuenak ezkontzeko hautua egin zuelako.

Baina, maitasuna ez du agiri baten giltzarrapoak eusten. Ez da, egunotan eskaintzaz josi gaituzten arren, 2x1 pack merketan saltzen. Ez da erosten. Ez da eskatzen. Maitasuna ez da ondasun bat; ez da zure bildumarako beste jabetza bat.

Are gehiago, ez dugu maiteminez minduta bizi nahi. Esnatzea nahi dugu. Dutzako ura aurpegian sentitzea. Kafea usaintzea. Begiradekin hitz egitea. Barrez lehertzea. Ordu txikitara arte eztabaidak luzatzea. Otordu baten bueltan biltzea. Liburu bat irakurtzea. Idaztea. Dantza egitea. Irribarre baten melodian zu aurkitzea. Agur batek eragiten duen zirraraz harritzea. Lotsaren mugak leherrarazten dituen ezteztan larrua jotzea... Baina, oroz gain, aske bizitzea.

Latente
Paula Quintana

Otsailaren 13an
20:00etan

Harriz Harri
El Teatre de L'Home Dibuijat

Otsailaren 14an
17:00 / 18:30

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEAK
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA

Durango Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

OTSAILAK 12
21:00etan
IBILALDIKO BERTSO AFARIA
BERTSOLARITZA

OTSAILAK 13
22:30ean
SORKUN + ANAI ARREBAK
KONTZERTUA

OTSAILAK 18 19:00etan
DURANGALDEKO GURE ESKU DAGO-REN AURKEZPENA

Norbere buruarekiko konfiantza

► PRAKAGORRI

Gizakiak aukera etengabe asko eskaintzen dizkion errealitateari aurre egin behar dionez eta bere helburu eta ekintzak hautatu behar dituenez, bere bizitza eta zorionak zeregin horietan asmatzea eskatzen dio: bere ondorio eta erabakiak zuzenak izan daitezela, alegia. Edozein kasutan ez dauka bere izaera baino haratago joaterik, ezin baitiezaiokegu inori hutsezintasunez edota orojakintzaz jarduterik eskatu edota horrelakorik inorengandik jasotzerik itxaron.

Behar duen guztia bere gaitasunaren baitan dago, eta honetan datza: bere hautaketa-metodologia edota erabakiak hartzeko dituen era eta bideak zuzenak direnaren sinesmena. Hau da, bere kontzientzia erabiltzeko duen prozesua egoki eta zuzena denaren erabateko sinesmena.

Arazo horri aurre egin beharrik ez dauka era automatikoan diharduen kontzientziadun bizidun batek, ez baitauka berea duen buru eragiketen baliozkotasuna zalantzan jartzeko gaitasunik. Gizakiok gure biziraupenerako daukagun baliabiderik nagusia gure burmuina izanik, hainbatetan altxor hori baztertzeko gai izaten gara. Bizidunen artean bizi ahal izateko gaitasunak eskuratu beharrean garen espezie bakarra gara, eta horixe da izaki bizidun bezala daukagun oinarritzko betebeharra. Gai hori nola kudeatu hautatzen den, zalantza izpirik gabe pertsona gisa daukagun egitaterik esanguratsuen da.

Gizakion kontzientziaren jarduera erregulatzen duen helburu nagusia jakintza da eta, ondorioz, aukera hori bideratu izanak aktibatutako buru eragiketek eraginkortasun kognitiboaren bidean jartzen gaituzte. Jakintza gure kontzientziaren helburu erregulatzailea dena ukatzen dugun bitartean eraginkortasunik eza kognitiboa izango da emaitza zuzena. Beraz, horretara jardun izatetik eratorritako ondorio nagusiak ez dira arrazoitzeko erantzukizunari uko egitea eta pentsatzeko ahalegina bera ere baztertzea besterik izango.

Bizitza aukeratze etengabea dugu. Bakoitzarengan dago pentsatuz jardutea edota egin gabe bizitzea, burua zentratuta izatea edota deskonektatuta izatea. Hori da gizakiaren oinarritzko hautaketa, zuzenean bere borondate-ahalmenaren barruan kokatzen den ekintza.

Gizaki orok buru-fokoa bizkortu edota mantendu dezake, bere ulermenaren zorrotasun eta argitasun maila bikainetara jasotzeko ahaleginean arituz. Beste aukera bat ere egikaritu dezake: buru-fokoa hurbilduzko ikuspegi gaudutsuan izatea edo beste era batera esanda helburu eta diskriminaziorik gabeko “noraezean” dabilen buru-egoe-ra pasiboan egotea.

Jakintza dugu gizakion kontzientziaren jarduera erregulatzen duen helburu nagusia

Bakoitzarengan dago pentsatuz jardutea edota era automatikoan, pentsatu gabe, aritzea

Bestalde, gizakiak ezagutza eta sentimenduen argi bereiz ditzake, bere burubidea bere adimenean oinarrituz eta ez bere emozioetan. Edo bere sentimendu sendoen (nahierak edo beldurrak) eraginpean bere adimenari uko eginez nolako baliagarritasuna duten aintzat hartzen gelditu gabeko bulkada jakin horien besoetan erori. Aukeran.

Gutariko edozeinek bere adimena erabiliz edozein baieztapen edota edozein gairi buruzko zuzentasuna edota zuzengabekeriari buruzko egitasuna edota faltsutasuna azter dezake. Edo kritikarik ezaren pasibotasunean izanez, hirugarrenen iritzi edota baieztapenak besterik gabe onartu, norbere burubidea litzatekeena besteen iritzi eta burubideagatik ordeztuz.

Aipatutako arlo horietan erabaki egoki eta zuzenak hartzen ditugun ala ez, gure bizitzarekiko kontrol sentsazioa izan edota izan gabe, hurrenez hurren, biziko gara. Norbereganaiko konfiantza norbere buruarekiko konfiantza izatean datza, gure buruak jakintzarako tresna gisa duen fidagarritasunean alegia.

Argi utzi beharra dago, dena dela, hurrengokoa: Konfiantza hori ez da inoiz erratu ezin gaitezkeenari buruzko sinesmenaren kontzeptu berdina. Konfiantza hori, beraz, jakin, iritziak eman eta pentsatzen jakiteaz gain, norbere errakuntzak zuzentzeko gaitasunaren jabe garenaren sinesmena dugu. Errealitatearen gainetik

inolako balore edota gogoeta modurik jartzen ez duguna jakin izateak ematen duen konfiantza da. Egitateekiko azaldu beharrekoa dugun begirunearen gainetik inolako interes edota eraspenik jartzen ez dugula jakiteak ematen digun konfiantza dugu.

Ondorioz, oinarritzkoa den konfiantza hori eremu edota zeregin jakin batzuetan pertsona batek eraginkortasun sentipena duela nabarmentzen duten azalekoagoak diren konfiantza motengandik bereizi beharra dago.

Norbereganaiko oinarritzko konfiantza hori ez da norberarenak diren ezaugarriez edota jakintzez emandako iritzia, trebetasun horiek eta lortutako ezagutza maila horiek ematen dizkigutenei buruzko iritzia baizik. Errealitatearekin dugun harremanari buruz eta errealitate horri aurre egiteko dugun gure berariazko era eta baliabideei buruz emandako aburua dugu.

Gizakia konfiantza-beharrian horretan bizi da; gizakiak bereganako konfiantza hori ezinbestean beharrezko du. Horrela ez balitz, biziraupenerako gizakiak duen bere tresnaren (burua) eraginkortasunaz zalantzakor agertuko balitz, bizitza gelditzea lekarke, hersturara eta babesgabetasunera behartuta izatea, bizitzeko gaituta ez egotera behartuta geundekete.

Gizaseme ororen izaera, erabaki moralei aurre egitean bakoitzak bereak dituen ekintzak zuzentzen dituzten portaerara eta baloreen multzoa da. Haurrek euren garapeneko lehendabiziko urratsetan euren ekintzak hautatzeko gaitasunaz jabetzen direnean, gero eta gehiago pertsona direnaren sentipena lortuz doazen neurrian, pertsona bezala ondo jarduten dutena sentitzearen beharria nabaritzen dute, berariazkoa duten euren jarduteko modua egokia edota ona dela ikusiz.

Pertsona bezala ondo jardutea zoriontasunerako gertu egotea da eta, aldiz, txarto jardutea nahigabea eta bihozminaren mehatxua jasatea da.

Autoestimua atal biak, norbereganaiko konfiantza eta norbere buruarekiko itzala, gizakiaren psikologian banaezinak dira. Gizakia bizitzarako duineko bihurtzen da horretarako gaitzen den heinean: bere burua egitasuna eta zuzentasuna zertan diren aurkitze-lanean diharduenean eta,

ondorioz, bere ekintzak kontrolatzera iristen denean.

Pertsona batek pentsatzeko eta arrazoitzeko erantzukizuna onartzen ez dituenean, bere bizi izateko gaitasuna era horretan garbi mugatuz, ez du bere balio pertsonalaren sentipenik izango. Bere sinesmen moralei lepo ematen baitie, horrela bere balio pertsonala ere mugatuz, ihesaren bitartez jardungo du. Be-

Konfiantza norbere errakuntzak zuzentzeko gaitasunaren jabe izatearen sinismena da

Gizakiaren osoko garapena bakoitzak bere buruari ezarritako helburu eta zereginen arabera da

re barne-sinesmenak (egokiak edo desegokiak) baztertzeari ekingo dio eta, ondorioz, gaitasunaren sentipena galdu egingo du. Aipatutakoak dira gizakiok dugun autoestimua beharrian izateko izaera eta zion nagusiak.

Autoestimua balorazio moral dugu, eta moralitasuna borondatearen baitakoa da, borondatearen eremuan bete-betean kokatzen den gaia dugu.

Bertutearen baliozko irizpide bakarra eta benetako autoestimua baterako oinarri posible bakarra gure burua bere gaitasunik gorenean erabili eta gure jakintza saihestea eragotziz edota bere aurka ez joatearen jarduerak garatzean datza.

Gizakiak bere autoestimua lortu eta mantendu behar baldin badu, lehendabiziko bal-

dintza, funtsezkoa bestalde, ulertzeko borondate hautsiezina mantentzea da. Gure pertzepzioaren baitan erortzen den guztiaren ulermenaren, ulergarritasuna edota argitasuna izateko nahia da gure buru-osasunaren zaindari nagusia eta gure garapen intelektualaren bultzatzaile ere.

Giza kontzientziaren ahal-tasun zabala bere inteligentzia mailaren arabera da, hau da, gizakiaren gaitasun-zabaleraren arabera da. Ulertzen saiatzen den borondateak, gizakiaren buru-eremuan sartzen den guztiaren identifikazioa eta baitaratzea eskatzen ditu.

Ume edota ikasleen esparrura etorritik, gazte batek gauzak ulertzeko borondateari uko ez dagion bitartean, egoerak ulertzen saiatzeko ekinean jarraitzen duen bitartean, bide onean dagoela esan dezakegu bitartean izan ditzakeen estutasun edo larrialdiak gorabehera. Baina eraginkortasun hori lortzeko itxaropen guztiei uko egiten dienean, bere zereginei erantzukizun osoz erantzuteko bere buruaren gaitasunetan sinesmenik ez duenean, erabateko autoestimua lortzeko aukerari uko egiten dio.

Gizakiak bere buruaren hazkuntza eta jarduera bere buruari jartzen dizkion helburuen arabera izaten da, edota bere kontzientziari agintzen dizkion zereginen arabera kontrolatzen du. Ulertzeko borondateari eutsi izateak buruaren indarra etengabe gehitzen duen hezkuntza eta garapen prozesua abiarazten du. Autoestimua lortzeko beharrezkoa den beste funtsezko baldintza bat jakintza eta sentimenduen arteko bereizketa egiteko gaitasunean datza, baina gai hori beste egun baterako.

Gorka Aurre
PRAKAGORRI



PRAKAGORRI
Reading skills
Tel.: 944 915 763 · Kurutzia kalea, 30 DURANGO
prakagorri@prakagorri.es

irakurri 4
ALDIZ ARINAGO
EMAITZA HARRIGARRIAK !



Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermenari!
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.

**9 urtetik aurrera, adin muga barik,
PRAKAGORRI dozu zure eta zure seme-alaben urtenbide**

“Ez dut sinesten oraindik; Goya bat irabaztea oso zaila zen guretzat”

Lara Izagirre zuzendari zornotzarraren pelikulak Goya sari bat eskuratu zuen joan zen asteburuan



Escolarrek Goya saria jaso zuen unea.



Escolar eta Izagirre, filmaren grabazioan.

> ZINEMA M.O./J.G.

Lara Izagirre zornotzarraren *Un otoño sin Berlin* pelikulak Goya sari bat irabazi du, Irene Escolarrek aktore berri onenaren saria lortuta. Izagirre “oso pozik” azaldu da, eta pelikulak osotasunean jasotakoa dela dio: “Pelikulak jaso zezakeen saririk politena da, lan guztia biltzen duelako”.

Izagirrek oraindik emozionatuta berba egiten du, zapatuan Escolarrek Goya saria jaso zuen unea gogoratzean. “Negar eta negar, horrela egon nintzen saria jaso zuenean. Gainera, galan, izkina batean geunden kokatuta, eta uste nuen ez gintuztela grabatuko”. Escolarrek eskerrak eman zizkion mikrofonotik, eta euren batasun hori nabarmendu du zornotzarrak: “Pelikula hau biona dela esan izan dugu beti”.

Gariza Films ekoiztetxetik jakitera eman dutenez, Irene Escolarrek korrika egin behar izan zuen galara garaiz iriste-

ko, izan ere, ordu gutxi batzuk lehenago Lorcaren *El Publico* antzezlanean Julietaren papera interpretatzen zegoen Zaragozako Printzipal Antzokian.

Madrilgo Auditoriumera iritsi eta minutu gutxira, Clara Lagok eta Oscar Jaenadak bere izena esan zuten, bera zen. Aurretik Goya Sari bat jasotzen duen Euskal Herriko film luze bakarra da Lara Izagirreren.

Izagirre: “Berak bazekien bere bizitzako papera zela, eta nire bizitzako pelikula ere bazen”

Bizitzako papera

Izagirrek garrantzi handia eman zion pelikulan pertsonaia protagonista zen Juneren azalean sartuko zen aktorea hautatzeari. “Aktorea Irene izan ez balitz, beste pelikula bat izango litzateke. Hain paper eder eta po-

lita egin zuen!”. Konbentzimentuz egindako lana izan zen, eta balioa eman zioten. Izagirrek dio Escolar oso langilea dela, aktore oso ona izateaz gain: “Berak bazekien bere bizitzako papera zela, eta nire bizitzako pelikula ere bazen”. Bientzako aukera bat izan da *Un otoño sin Berlin*, eta Goya sariari esker, itzelezko jauzia eman dute.

Lara Izagirre atzerrian bizitakoa da. Pelikula grabatzen ari zela, konturatu zen bere bizitzatik ere bazuela zer edo zer. “Orain ari naiz horretaz konturatzen... Ez nuke esango ez pertsonaia bat, ez bestea naizenik, baina biek dute niretik zer edo zer. Honelako prozesuetan ezin duzu ihes egin: konturatu barik zoaz zure izaera sartzen. Bizitzak eragina du: inguruan daukazu jendeak, irakurtzen duzunak...”. Hala ere, filmak kontatzen duen istorioa ez dela autobiografikoa aitortu zuen Izagirrek.

Zornotzan grabatua

Lara Izagirrek bere herrian, Zornotzan grabatu zuen filme-ko zati haundi bat. “Herri bat aukeratu behar nuen, eta neurea aukeratu dut. Ilusioa egiten dit nire lehenengo film luzea Zornotzan kokatzek”.

2016 ko UDABERRIAN OLGETAN egonaldia



Norentzat
3-10 urte bitartekoentzat
(2006-2012 urte bitartean jaioak)

Datak
Martxoak 21, 22, 23, 29, 30, 31 eta apirilak 1ean
(Egun solteetan izena emateko aukera)

Orduetgia
9:00-13:30

Prezioak
+ Egun 1: Bazkideak 12€
Ez bazkideak 15€

+ Egonaldi osoa: Bazkideak 70€
(7 egun) Ez bazkideak 90€

Izen-ematea
Berbaroren bulegoan martxoaren 11a baino lehen. Plaza mugatvak!



Gozatu olgetan euskaraz berbetan!

Berbaro Elkarte: Pinondo plaza 1, 1.solairua / 946202540 / www.berbaro.eus / aisialdia@berbaro.eus

Maria Bazan | Durango Judo Taldeko Judolaria | Durango, 1997

“Hamar bat urtegaz judoa probatu, eta ‘hauxe da nirea’ pentsatu nuen”

Joan zen asteburuan, gazte mailako brontzezko domina irabazi zuen Euskadiko txapelketan



> JUDO Joseba Derteano Umetan, saskibaloia judoagatik aldatu zuen Maria Bazanek. Emakumeen artean saskibaloia kirol nagusia den herrian, erabaki horrek ondo erakusten du judoari dion estimua. Azken urteetan, dominak irabaztera ere ohituta dago Durangoko Judo Taldearen barruan. Euskadin, gaur egun bereak dira brontzezko dominak gazte mailan eta baita nagusietan ere.

Euskadiko txapelketan brontzezko domina irabazi berri duzu gazte mailan. Gustura zaude emaitzagaz?

Hasi aurretioxan, oso ondo sentitzen nintzen. Txapelketa irabazi nezakeela ere sentitzen nuen. Borrokaldietan ere beste hainbeste. Lehenengoan gustura aritu nintzen. Hori bai, irabaztea

kostatu zitzaidan, arerioa oso maila onekoa zelako. Aurretik ere irabazia nion, eta banekien maila ona zuela. Bigarren borrokaldia gogorra izan zen. Galdu egin nuen. Hainbat faktore izan ziren borrokaldi horretan. Besteak beste, uste dut epaileek ez zidatela merezi nuen puntuaketa eman.

Testuinguru horretan, zelan baloratzen duzu brontzezko domina?

Ondo baloratzen dut, baina... zelan esan, emaitza hobea lortu nezakeen sentsazioarekin ere utzi ninduen. Uste dut gorago heldu ahal nintzela.

Berezia da zure kasua: Euskadiko txapelketako brontzezko dominaren jabe zara gazteetan zein nagusietan.

Bai, hori da. Nagusietakoa ere orain gutxi irabazi nuen, 63 kiloz azpikoan. Entrenamenduek ondoren bere saria dakartela ikustea beti da pozgarria.

Urte asko daramazu judoa praktikatzeko?

Bai, umetatik. Lehenengo, saskibaloian aritu nintzen, Jesuitetan. Egun batean, Maristetara joan ginen nire lehengusua judoan ikustera, eta bere saioa amaitu zuenean, izekok galdetu zidan ea lehengusuaren kimonoa jantzi eta judoa probatu gura nuen. Baietz esan nion. Probatu, eta gustatu egin zitzaidan. “Hauxe da nirea”, pentsatu nuen. Ezagutu nuen jendea ere atsegina iruditzen zitzaidan. Horregatik, saskibaloia utzi eta judoan hasi nintzen. Orduan, hamar bat urte izango nituen.

“**Judoan lagun taldea osatzen dugu, elkarri lagunduz; horri balio handia ematen diot**”

“**Entrenatzea ez zait kostatzen. Gaixorik nagoela ere joango nintzateke, baina beti ezin da**”

2013an, Espainiako txapelketa batean finalerdien atarian geratu zinen. Txapelketa azpimarragarria egin zenuen estatuko onenen aurka. Gogoan duzu txapelketa hura?

Bai. Lehenengo borrokaldi biak irabazi, eta bat galdu nuen. Gustura aritu nintzen, eta gomuta oso onak ditut. Ea berriro Espainiakoan parte hartzeko aukerarik daukadan.

Adituek diote junior mailarako saltoa denetan zailena izaten dela. Horrela gertatu zaizu zuri ere?

Igarri dut, baina ez hainbeste ere. Beharbada, bire borrokatzeko estiloak lagundu dit. Nik nire betiko judo mota praktikatzeko jarraitzen dut. Judo azkarra egiten saiatzen naiz, eta tatamiaren gainean asko mugitzen den horietakoa naiz.

Beraz, defenditzea baino gura duzu aurrera egitea?

Teknika bat egiteko aukera ikusten dudanean, probatzea gustatzen zait.

Iñaki Salas da zure irakaslea. Judoan pertsona ezaguna da Durangaldean. Zer aholku ematen dizu?

Batzuetan, ez diodala entzuten esaten dit, eta gehiagotan entzuten ikasi behar dudala (irribarrez). Entzun eta kasu egin behar diodala.

Zelakoa da entrenatzaile moduan?

Irakasle oso ona da. Durangon ezaguna da judoaren alorrean, eta gustura nabil beragaz. Baina berdina diot nire taldeki-deengatik ere. Lagun talde bat osatzen dugu, elkarri laguntzen diogu, eta horri balio handia ematen diot. Judoan ematen diren balioak ere gustatzen zaizkit: adiskidetasuna, errespetua...

Iñaki Salasek dio zure bertuteetako bat urteetan zehar entrenatzeko erakutsi duzun konstantzia dela. Ados zaude?

Bai, entrenatzera joatea ez zait kostatzen. Gaixorik banago, azterketak baditut, edota ezin banaiz entrenatzera joan, deseroso sentitzen naiz. Ni gaixorik ere joango nintzateke, baina beti ezin da.

2016 urteari begira, zeintzuk dira zure erronka nagusiak?

Helburu zehatzak baino, gero eta gogorrago eta hobeto entrenatzea nahiko nuke, urrezko dominak irabazteko. Bide horretan saiatuko naiz.

Euskadin?

Euskadin zein edonon. Edozein txapelketa dela ere: urrearen bila!



Maria Bazan —eskumatik bigarrena— Euskadiko txapelketako podiumean.

Durangaldeko gazteen taldeetako kromo bildumak modan jarri dira

Albumetan futbol taldeetako jokalaria eta entrenatzaileak ageri dira



Berrizko futbol taldeak urtarrilean aurkeztu zuen bere kromo bilduma.

> FUTBOLA Paul Bustindui
Gero eta futbol talde gehiago ari da bere kromo bilduma propioa kaleratzen. Bertan, gaztetxoak dira protagonistak, kromo propioa baitaukate guztiek.

Urtebete egin berri dute Kromobil enpresakoek, eta beraiek dira Berrizko futbol taldearen kromoen arduradunak. Jokalari bakoitzak bere kromoa dauka, bai lehenengo taldekoek, bai

gaztetxoek. Urtarrilean argitaratu zuten Berrizko bilduma, eta talde osoa atera nahi zuten bertan: "Jokalariek bakarkako eta talde osoaren kromoak dituzte, eta entrenatzaileek ge-

rritik gorako arkazki bakarra" adierazi dute.

Amorebieta izan zen kromoen moda probatzen lehenengo taldea Durangaldean. "Urteetan beraien taldeetako jokalarien bilduma egin ondoren, ilusio handia egiten die txiki-txoei beraiek izatea kromoetako gazteak", dio Amorebieta futbol taldeko Saioa Larrinagak.

Abadiñon, albuma oparitu egiten diete umeei, hauek gero bilduma osoa egin dezaten. Abadiñoko futbol taldean, sei kromo eskuratzeko aukera dago euro baten truke.

Badira kromo bilduma ateratzeko interesa daukaten beste talde batzuk ere. Zalduaren kasuan, begi onez ikusten dute datorren denboraldietan kromo bilduma bat argitaratzea: "Herriko neska-mutilentzat bilduma egitea polita da klubeko pertsonak ezagutarazteko". Bestalde, beste kiroletara ere zabandu nahi dute zaldibartarrak ekimen hau: "Pilotan ere ateratzeko intentzioa daukagu", dio Zaldua futbol taldeko direktibako Roberto Terrobak.

ADITUAREN TXOKOA

GOTZON GOMEZ

Errugbia



Mundialaren ajeak

Iaz, Britainia Handian jokatutako errugbi Mundialak aje ederra utzi zuen ipar hemisferioko taldeen artean. Inork ez zuen finalerdietan sartzerik lortu, eta antolatzaileen kasuan, Ingalaterra, porrota itzela izan zen.

Emaitza hauek aldaketa ugari ekarri zituzten, Ingalaterrak Lancaster entrenatzailea kanporatu, eta bere ordeez Eddie Jones jarri zuen aulkian. Frantziak ere gauza bera egin zuen, Saint Andréren ordeez Tolosarekin Europako txapeladuna izandako Guy Noves taldearen gidaria izendatuz.

Aurreko larunbatean Sei Nazioko txapelketari hasiera eman zitzaion, eta arestian aipatutako talde biek garaipena lortu arren, (Frantzia 23-21 Italia, eta Eskozia 9-15 Ingalaterra) zalan-tza ugari erakutsi zituzten.

Frantzia azpitik joan zen ia partida osoan, eta amaieran, txiripaz lortu zuen garaipena italiarren aurka. Ingalaterrak Calcutta Cup-a irabazi zion Eskoziari, baina ez zuen joko onik garatu.

Igandean, Dublinen izan genuen jardunaldi honetako partidarik onena. Aurrez aurre azken bi txapeladunak: Irlanda eta Gales. Berdindu egin zuten (16-16) eta talde biek erakutsi zuten txapelketarako faborito nagusienak direla dudarik gabe, jarrera eta indarragatik. Uste dut, galestarrek aukera gehiago dituztela, etxean hiru partida dituztelako, eta kanpoan bakarra. Asmatzen ez badut ere, ikuskizun ederrak izan ditugu hurrengoko asteburuetan. Gozatu!

Maria Garcia txapeldun, faborito zirenei irabazita



Maria Garcia —eskumatik lehenengoa— Torneoko finalean. Fair Play

> PADELA J.D.
Hainbat erkidegotako bikoteek parte hartu zuten Padel Bizkaiko azpiegiturretan jokatutako torneoan. Fair Play taldeko Maria Garcia durangarrak eta Irene Cuestak ezustekoa eman zuten haur-kategorian.

Finalean, Madrildik zetozen bigarren zerrendaburuak menderatu zituzten. Patxadaz eta zentzu handiz jokatu zuten, eta faboritoak baino gehiago izan ziren. Torneoa Espainiako txapelketarako puntuagarria izan zen.

Azoka eta ikuskizunak, Amorebietak antolatuta

> AZOKA J.D.

Amorebieta Kirol Elkartek artisautzaren eta elikagaien inguruko azoka antolatuko du asteburuan. 30 bat postu egongo dira Zelaieta Parkean. Postuak jartzeagatik jasotzen dituzten donazioak kirol elkartearen beharrian ekonomikoei laguntzeko erabiliko dituzte.

Inauteri Azoka deitu diote ekintzari. "Inauterien inguruan antolatzen diren askotariko ekintzei jarraipena emateko modua da" Aitor Lopez azokako antolatzaileetako baten esanetan. Postuetako lagunak moztortuta egongo dira, eta gura duten herritarrei ere moztortzeko deia egin diete.

Gaur, 17:00etan, asteburuko ekintzen aurkezpena egingo dute parkean, besteak beste,

Amorebieta futbol taldeko jokalaria bertan direla. Ondoren, 18:00 inguruan, Charly showmanaren ikuskizunagaz gozatu ahalko da. Segidan, *E.T. estralurtarra* filma eskainiko dute.

Zapatuan, 11:00etatik 22:00etara irekiko dute azoka. Eguerdian, 13:00 inguruan, umeendako ekintzak egingo dituzte (puzgarriak, esaterako) eta, arratsaldean, *The Goonies* filma eskainiko dute.

Lambretta motorrak

Domekan, Eibarko Lambretta motorren taldeak motor horien kontzentrazioa egingo du Zornotzan. 12:30 inguruan, Zelaieta parkean ikusgai egongo dira 20 bat Lambretta. Iluntzean, Charly showmanaren ikuskizunagaz amaituko dute ekimena.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

hitz
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

HELDUENTZAT



BELTZAREN KOLOREAK
Jon Alonso
(2016)

UME ETA GAZTEENTZAT





MAKAL SENDOAK
Antton Kazabon
& Jokin Mitxelena (2015)

MUSIKA



ETA META-FORAK GREBA EGIN ZEBEN...
Jupiter Jon
(2015)



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA



GARBIKETA



LOREZAINNTZA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industriadan, 45 Garain A - Berria
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar

Goietla, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 946 820 991

Jardines **Patxi** *Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23. 1. ezk
48200 DURANGO

PATXI
696 463 085



ITURGINTZA

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

Abadiño Euskal Herriko krosaren epizentro bihurtuko dute 1.200 korrikalarik, domekan

Umetxoetatik beteranoetara, adin denetako krosleriak lehiatuko dira Eroskiren atzealdeko zirkuituan



Ezkerretik hasita: Jose Maria Sainz, Eneko Etxebarria, Juanjo Anderez eta Jose Antonio Silva, krosek aurkezpenean.

